

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko otsailaren 5etik 11rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/02/10

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.** Lan hitzarmen kolektiboak. Ebazpena, 2022ko otsailaren 1ekoa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez zuzentzen diren 2021eko azaroaren 25ekoaren akatsak. Horren bidez, erregistratzen eta argitaratzen da Arte grafikoen, paperaren eta kartoiaren manipulazioen, argitaletxeen eta honen industria laguntzaileen Estatuko 2021-2022rako hitzarmen kolektiboa. **2161 xedapena - 2 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/02/10

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Eraikuntzaren Hitzarmen Kolektiboaren 2022ko soldaten berrikuspena erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000715011981). **III-29 xedapena - 9 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/02/05

- **GORTE NAGUSIAK. Premiazko neurriak.** - Ebazpena, 2022ko otsailaren 1ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzioko eta eusteko premiazko neurriak hartzen dituen abenduaren 23ko 30/2021 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze-akordioa. **1856 xedapena - 1 or.**

2022/02/08

- **GORTE NAGUSIAK. Kreditu entitateak eta inbertsio zerbitzuen enpresak. Aktiboak kudeatzeko sozietateak.** Ebazpena, 2022ko otsailaren 3koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila urtarrilaren 18ko 1/2022 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Horren bidez, honako hauek aldatzen dira: 9/2012 Legea, azaroaren 14koa, kreditu erakundeak berregituratu eta konpontzeari buruzkoa; 11/2015 Legea, ekainaren 18koa, kreditu erakundeak eta inbertsio zerbitzuetarako enpresak berreskuratu eta suntsiaraztearena; eta 1559/2012 Errege Dekretua, azaroaren 15ekoa, aktiboak kudeatzeko sozietateen araubide juridikoa ezartzen duena, Bankuak Berregituratzetik datozen Aktiboak Kudeatzeko Elkartearen (SAREB) araubide juridikoarekin lotuta. **1981 xedapena - 1 or.**
- **GORTE NAGUSIAK. Premiazko neurriak.** Ebazpena, 2022ko otsailaren 3koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Errege lege-dekretu horren bidez, premiazko neurriak hartzen dira lan erreformarako, enpleguan egonkortasuna bermatzeko eta lan merkatua eraldatzeko. **1982 xedapena- 1 or.**

2022/02/09

- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. EKONOMIA ITUNA.** 1/2022 Legea, otsailaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen den Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea. **2051 xedapena - 12 or.**
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.** - Mahasgintzako ekoizpena. 111/2022 Errege Dekretua, otsailaren 8koa, mahasgintzako ekoizpen-ahalmena arautzen duen urriaren 29ko 1338/2018 Errege Dekretua aldatzen duena. **2058 xedapena - 20 or.**
- **OSASUN MINISTERIOA.** Osasun neurriak. 115/2022 Errege Dekretua, otsailaren 8koa, COVID-19ak eragindako osasun krisiko egoeran zehar maskaren nahitaezko erabilera aldatzen duena. **2062 xedapena - 4 or.**

2022/02/10

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA.** Kutsadura akustikoa. PCM/80/2022 Agindua, otsailaren 7koa, zeinaren bidez aldatzen den abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuaren II. eranskina. Errege Dekretu horren bidez garatzen da zarataren azaroaren 17ko 37/2003 Legea, ingurune-zarataren ebaluazioari dagokionez. **2120 xedapena- 77 or.**

2022/02/11

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Ontzi pneumatikoak eta erdi-zurrinak.** Akats-zuzenketa, honako errege dekretu honena: 807/2021 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, zeinaren bidez onesten den, erabiltzen diren ontziei dagokienez, pertsonen eta merkantzien legez kanpoko trafikoaren aurka borrokatzeko zenbait neurri hartzen dituen urriaren 26ko 16/2018 Errege Lege-dekretuaren artikulua bakarreko 3. apartatuaren f), g), h) eta i) letretako ontzi pneumatiko eta erdi-zurrunen kontrolerako Erregelamendua, eta aldatzen den Justizia Administrazioari laguntzeko administrazio-erregistroen sistema arautzen duen otsailaren 6ko 95/2009 Errege Dekretua. **2175 xedapena - 1 or.**
- **BARNE MINISTERIOA. Mugak.** INT/85/2022 Agindua, otsailaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua. Agindu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren eta osasun publikoaren arloko arrazoiengatik. **2176 xedapena - 2 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Aurrekontuak.** 11/2021 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen. **2177 xedapena - 106 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Ingurumena.** Akats-zuzenketa, honako lege honena: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. **2178 xedapena - 1 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/02/10

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA. HUTS-ZUZENKETA,** honako dekretu honena: 181/2021 Dekretua, uztailaren 20koa, EAEko langile autonomoen elkarte profesionalen erregistroaren antolaketa eta funtzionamendurako araudia onartzen duena. 500 xedapena - 17 or. **675 xedapena - 1 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2022/02/09

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua,

otsailaren 1ekoa. Onespena ematea energiaren arloko premiazko neurriei eta bestelako zerga neurriei. **243 xedapena - 4 or.**

2022/02/11

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun Finantza eta Aurrekontu, Saileko foru diputatua, 55/2022 Foru Agindua, otsailaren 2koa, Foru Agindua, onesten duena 560 eredu 'Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa' eta ezartzekoa hura nola eta zein prozedurari jarraituz aurkeztu. **269 xedapena - 10 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/02/11

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** 1/2022 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, otsailaren 8koa; honen bidez, aldatu egiten da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua, inportazioei eta hornidura batzuei lotutako aldi baterako salbuespenei dagokienez, COVID-19aren pandemiari erantzuteko, eta tributu-arloko neurri jakin batzuk luzatzen dira balio erantsiaren gaineko zergan eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan. **I-129 xedapena - 5 or.**

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2022/02/07

- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2022/160 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2022ko otsailaren 4koa, zeinaren bidez Batasuneko betekizun zoosanitarioak betetzen direla egiaztatzeko zenbait kontrol ofizialen gutxieneko maiztasun uniformeak ezartzen diren, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduaren arabera, eta 1082/2003 (EE) eta 1505/2006 (EE) erregelamenduak indargabetzen diren. **L 26/11 xedapena - 6 or.**

2022/02/09

- **EUROPAKO BANKU ZENTRALA. 2022/C 68/02.** Europako Banku Zentralaren Irizpena, 2021eko azaroaren 30ekoa, kriptoaktiboen transferentzien trazabilitate-baldintzak zabaltzeko Erregelamendua sortzeko proposamenari buruz. **C 68/2 xedapena - 3 or.**

2022/02/10

- Akats-zuzenketa, honako gomendio honena: Kontseiluaren 2022/108 (EB) Gomendioa, 2022ko urtarrilaren 25ekoa, 2020/1632 (EB) Gomendioa aldatzen duena, COVID-19aren pandemian Schengen eremuan zirkulazio libre segurua errazteko ikuspegi koordinatuari dagokionez (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, L 18, 2022ko urtarrilaren 27koa). **L 29/44 xedapena - 1 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO